

ELAren proposamena trantsizio ekosozialerako



www.ela.eus



EUSKAL SINDIKATUA

AURKIBIDEA

1. ELAren hausnarketa krisi ekologikoaren ziurgabetasunaren aurrean.....	3
2. Hego Euskal Herriko ekonomiaren ezaugarriak.....	3
3. Egungo egitura ekonomikoa etorkizunean mantentzea ezinezkoa da	4
4. Enplegu gehien sortzen dituzten sektoreak iraunkorrak al dira?	4
5. Trantsizio ekosozialerako hartu beharreko neurriak	5

1. ELAren HAUSNARKETA KRISI EKOLOGIKOAREN ZIURGABETASUNAREN AURREAN

Dokumentu honek, ELAk trantsizio ekosozialerako landu duen proposamena jasotzen du. Bertan sindikatuak egiten duen egoeraren diagnosia ere azaltzen da.

Larrialdi ekologiko garaian gaude, eta etorkizun hurbilean krisi energetikoak eta materialenak aurreikusten dira. Egoera honen aurrean, irtenbide justuagoak borrokatu ahal izateko ELArentzat ezinbestekoa da nolako trantsizioa behar dugun zehaztea.

Gaur egun aurrean dugun erronka handienetakoa ekonomiaren trantsizio ekologiko eta soziala da. ELAren azken bi Kongresuetan honi buruzko hausnarketak egin dira eta Ponentziaren parte izan da. Azken urtean krisi ekologikoaren ondorioak gogorrago hasi gara pairatzen eta ez dira beharrezkoak diren neurriak hartzen ari.

Klima aldaketaren eraginak urrun ikusten ziren baina gure eguneroko bizitzan gero eta inpaktu nabariagoak izaten ditugu, baita enpleguan ere. Ziurgabetasunez beteriko etorkizun honen aurrean, orain arte landu ez ditugun erronka askori aurre egin beharko diegu ELAn. Trantsizio ezberdinak egin beharko dira. Horregatik, sindikatuak trantsizio ekosozialerako proposamen bat landu du.

2. HEGO EUSKAL HERRIKO EKONOMIAREN EZAUGARRIAK

Azken urtean krisi ekologikoaren ondorioak gogorrago hasi gara pairatzen eta ez dira beharrezkoak diren neurriak hartzen. Krisi ekologikoaren eraginak urrun ikusten ziren, baina gure eguneroko bizitzan gero eta inpaktu nabariagoak izaten ditugu. Eta inpaktu hauek enpleguan ere igartzen hasiak gara.

HEHko ekonomiaren antolaketak egoera honen aurrean ahultasun egoera batean jartzen gaitu, ekonomia gure esku ez dauden faktore askoren esku utzi baita. Gure ekoizpen, banaketa eta kontsumo ereduak ingurumenari sortzen dizkion kalteez gain, menpekotasun egoera larria eragiten du.

Hauek dira HEHko ekonomiaren ezaugarri nagusiak:

- Hego Euskal Herriko ekonomia sortzen dituen inpaktu ekologiko larriengatik jasanezina da. Ekoizpen industrialaren eta garraioaren oso menpekota da.

- Ez da ekonomia zirkularra, energia fosilean eta estraktibismoan dago oinarritua Material berriztaezinen menpekoa da eta hauen kudeatzaile gisa funtzionatzen du: lurraldearen kanpotik datozen erregai fosilak eta mineralak transformatu eta berriz ere bere mugetatik kanpo esportatzen ditu.
- Jarduera ekonomikorako erabakigarria da petrolioaren menpeko garraioa, are gehiago ekonomia globalizatuan.
- Gehien fakturatzen duten eta enplegu asko sortzen dituzten jarduerak menpeko funtzionamendu honi lotutakoak dira:
 - Balio erantsi handiko salgaiak ekoizten dituztenak (automobilak, altzairua...).
 - Logistika globalizatuaren menpekoak.
 - Energia intentsitate handikoak.
 - Elikagai industriak.

3. EGUNGO EGITURA EKONOMIKOA ETORKIZUNEAN MANTENTZEA EZINEZKOA DA

3.1. Muga materialak

Hego Euskal Herriko ekonomiak erabilitako material gehienak ez dira berriztagarriak edota birziklagarriak, eta material estrategiko batzuk eskuratzea gero eta zailagoa da. Gas, petrolio eta ikatzaren erauzketaren goia jota edo jotzean da. Egoera bera da ekonomiarako erabakigarri diren material askorena ere: kobrea (elektrizitatea), fosforoa (elikagaiak ekoizteko), teluroa eta zilarra (elektronika, energia berriztagarrien kaptadoreentzat), plastikoa,... Material hauek ordezkatu egin beharko lirатеke berrerabili edota birziklatu ahalko lirатеkeen beste batzuekin. Eta hori oztopo gaindiezin bat da.

3.2. Energia berriztagarrien mugak

Erregai fosilak eta iturri nuklearrak ezin dira goi teknologiako berriztagarriekin ordezkatu. Hainbat berriztagarriren (hidroelektrikoa, eolikoa, biomasa eta eguzki erradiazio) ezaugarriak energia fosilen kontrakoak dira: energia oso sakabanatuta dago, energia asko behar da iturri berriztagarriak ustiatzeko, eta ezin dira biltegitatu energia fosila bezala.

4. ENPLEGU GEHIEN SORTZEN DITUZTEN SEKTOREAK IRAUNKORRAK AL DIRA?

Lotura estua dago enplegua sortzearen, hazkunde ekonomikoaren eta inpaktu ekologikoaren artean. Industria sektorea da adierazgarrienetako bat. Energia kontsumo altua duten enpresak dira langile gehien okupatzen dituztenak.

Arlo sozioekonomikoan, energia eta materiala murrizteak lanpostu asko suntsitzea ekarriko luke, baldin eta beste neurririk hartzen ez badugu.

Enplegua suntsitzearen ondorioz, zailtasun handia izango luke langile klaseak beren bizitzak sostengatzeko, bere beharrak asetzeko gaur egun ezinbestekoak baititu merkatua eta soldata.

Bestalde, zaintza sektorea dago. Egiten diren lan guztien artean (produktiboak eta erreproduktiboak) pisu gehien duena da, bizitza sostengatzeko ezinbestekoa eta funtsean ezkutatua eta feminizatua dago. Hego Euskal Herriko ekonomiak beste erronka handi bati ere egin behar dio aurre beraz: zaintza lana aitortzea.

5. TRANTSIZIO EKOSOZIALERAKO HARTU BEHARREKO NEURRIAK

Hego Euskal Herriko ekonomia, nahitaez, sakon eraldatu beharko da bere funtzionamendua aldatzeko. Erronka hauei aurre egiteko, eraldaketa sozioekonomiko sakona behar dugu: lana bizitza sostengatzeko bitarteko gisa ulertzea, hain zuzen, eta ez kapitala erreproduzitzeko. Eraldatzeko hainbat ildo landu beharko dira:

- Materialen eta energiaren kontsumoa murriztu. Muga ekologikoen barruan egon arte eta justizia globaleko irizpideei jarraituz. Horrek ondorioak dakartza gure kontsumo, ekoizpen eta mugikortasun ereduari.
- Energiaren sektorea berrantolatu. Energia sektorea publikatu, benetan berriztagarriak diren energiak garatu eta egungo energia fosilen ekoizpena geldiarazi.
- Ekonomia birkokatu. Ekonomia gertukoa eta zirkularra izan behar da, material eta energia berriztagarriekin funtzionatuz, industriaren ekoizpen ereduari eraldatu eta dibertsifikatu behar da.
- Garraio sistema eraldatu. Ez da nahikoa izango elektrifikazioa, merkantzien mugikortasuna murriztu eta pertsonen mugikortasuna garraio publiko eta kolektiboan oinarritu behar da.
- Elikadura burujabetza areagotu. Agroekologia eta basogintza iraunkorra ezinbesteko sektoreak izango dira etorkizuneko ekonomian. CO2 emisioak xurgatu eta ingurumena babesteaz gain, ekonomia birkokatzeko.
- Ekonomia berrantolatu. Erdigunean jarri behar dira zaintza, bizitza sostengatzea eta oso feminizatuta dauden zaintza lanen banaketa.
- Aberastasunaren banaketa eta enplegua banatzeko lanaldia murriztea.
- Oinarrizko zerbitzuen desmerkantilizazioa. Herritarren beharrak merkatutik pasa gabe betetzeko lehentasuna izan behar da zerbitzu publikoak indartzea, herritarrei osasungintza, hezkuntza eta bestelako zerbitzu publikoak bermatzeko.

Gizarte justuago, demokratikoago eta jasangarriagorantz aurrera egin behar dugu, eta ELA eraldaketa honen bultzatzaile izan behar da. Ezin dugu enplegua galdu edo suntsipen kapitalistaren artean aukeratu. Lan eskubideak eta bizitzarekin bateragarriak diren jardura ekonomikoak uztartzen dituzten trantsizioak bultzatu behar ditugu, mobilizazioa eta negoziazio kolektiboaren bitartez.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA